

Juan San Martin

Eganeko zuzendari ohia gogoan

Koro SEGUROLA

Egan aldizkaria

Egan literatura aldizkariak gogora ekarri nahi du Juan San Martinen jaiotzaren mendeurrena (1922-2022), aldizkari honetako zuzendari izan zen aldetik (1983-1989). Koldo Mitxelenak —orduko zuzendariak— eskatuta hartu zuen ardura, eta bi euskaltzainek elkarrekin zuzendu zuten aldizkaria 1987. urtera arte, Mitxelena zendu zen arte. Hortik aurrera, Iñaki Zumalderekin batera eraman zuen *Eganeko* gidaritzza.

Orduan Juan San Martinek “gertakari”tzat jo zuen *Eganek* “euskal literaturagintzan 30 urte” bete izana, literatura gaiei loturiko euskarazko aldizkari batek “ez zuelako inoiz horrenbeste iraun” (*Egan*, 1984-5/6, 5-7. or.). Garai horretan aldizkariak ibilbide berri bat hartu zuen, narratibaren arloan, batez ere, eta euskal idazle berriei bere lekua egiten utzi zitzaien.

60ko hamarkadatik, aldizkariaren ardura hartu baino hogeitaz urte lehenagotik, idatzi ugari argitaratu zituen *Eganen* euskarari eta literaturari buruzkoak. Horren erakusgarri da 2005ean *Eganek* argitaratutako antologia, Oier San Martin semeak prestatua. *Juan San Martinen Antologia* 1960. urtetik 1987. urtera arte aldizkarian argitara emandako idazlanen bilduma da. Orain, bere gorazarretan, antologia hori aldizkariaren webgunean eskuragarri jarri dugu.

Harrezkero, 90eko hamarkadatik ere makina bat orrialde bete zuen San Martinek *Eganen*, 2018ko lehen alean argitaratu genituen aurkibideetan ikus daitekeen bezala: *Aurkibideak 1948-1992 / 1993-2017*.

Juan Luis Zabala idazlearen eta *Eganeko* kidearen idazlana Juan San Martin gogoratzera eta omentzera dator, eta oroz gainetik gure esker ona adieraztera, izan zirelako baikara.